

## IRAGARKIAK

### Beste iragarki ofizial batzuk

#### INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

## 409

*IRAGARKIA, Ingurumen Administrazioaren zuzendariarena, Chatarras Gasteiz SLU enpresak aurkeztutako proiektu teknikoa jendaurrean jartzeko dena. Proiektu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumen-baimen bakarra lortzeko, Vitoria-Gasteizko udalerriko Zubibarri kaleko 4an hondakinak kudeatzeko jarduera sustatu da.*

Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legeak ingurumen-baimen bakarraren mende jartzen du titulartasun publiko edo pribatuko jarduerak eta instalazioak ustiatzea, baldin eta I.B. eranskinean jasotako jardueraren bat egiten bada.

Ingurumen-baimen bakarraren bidez, egintza bakar batean eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoak aldeztutako emandako administrazio-prozedura bakar batean integratuko dira hondakinak sortzeko eta kudeatzeko baimenak, kolektorerak, jabari publiko hidraulikora eta itsaso eta lehorren arteko jabari publikora isurketak egiteko baimenak, eta kasuan kasuko isurtzeko muga-balioak finkatuko dira, aplikatzeko den araudi sektorialean xedatutakoaren arabera.

Aipatutako arauak 36. artikuluan ezartzen duenez, behin eskabidea aurkeztuta eta aurkeztutako dokumentazioa osatuta dagoela egiaztatuta, instalazio- edo jardura-proiektua jendaurrean jarriko da hogeita hamar egun balioduneko epean, alegazioak aurkeztu ahal izateko. Horretarako, aldeztutako iragarkia jarriko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan.

Horiek horrela, jendaurrean jarri behar da, hogeita hamar egun balioduneko epean, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita, AAU00961 espedientearen egoki irizitako alegazioak edo oharra aurkeztu daitezkeen.

Jendaurrean jartzeko izapidea bete behar duen instalazioaren dokumentazioa jendearen eskura egongo da Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoan (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>).

Vitoria-Gasteiz, 2026ko urtarrilaren 21a.

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria,  
NICOLAS GARCIA-BORREGUERO URIBE.

## ERANSKINA

| Espediente zk.        | Instalazioa           | Udalerria       |
|-----------------------|-----------------------|-----------------|
| AAU00961_SOL_2023_001 | Chatarras Gasteiz SLU | Vitoria-Gasteiz |